

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak fruta eta barazkiak jatea bultzatzeko bigarren eskola-kanpaina aurkeztu du

Foru Erkidegoko 78 udalerritako 109 zentrotako 3 eta 6 urte arteko 9.224 ikaslek hartuko dute parte

Jueves, 16 de febrero de 2012

Lourdes Goicoechea Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilariak, José Iribas Hezkuntza kontseilariak eta Marisol Aranguren Nafarroako Gobernuko Osasunbideko zuzendariak 2011-2012 ikasturterako frutaren eskola-kanpainaren bigarren edizioa aurkeztu dute gaur goizean [Sarriguren ikastetxe publikoan](#). Kanpaina Foru Erkidegoko 78 udalerritako 109 zentrotako 3 eta 6 urte arteko (haur hezkuntzako bigarren zikloa) 9.224 ikaslek hartuko dute parte. Gobernuo kideekin batera izan da aurkezpenean Ángel Miguel Goñi ikastetxeko zuzendaria.



Iribas eta Goicoechea kontseilariak eta Marisol Aranguren Osasunbideko zuzendaria Sarriguren ikastetxe publikoko ikasleekin hizketan, frutaren eskola-kanpainaren aurkezpenean

Kanpainaren helburua ikasleei jateko ohitura osasungarriak izatera bultzatzea da, batik bat fruta eta barazkiak, obesitateari aurre egiteko eta hainbat gaixotasun prebenitze aldera [energia-dentsitatea](#) delakoa murrizteko. Kanpaina Espainiako Gobernuo Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren nutrizioaren, ariketa fisikoaren eta obesitatea prebenitzearen aldeko [NAOS estrategiaren](#) barruan burutzen da.

Kanpainaren asmoa ikasleek landagunea eta nekazaritza ezagutu eta baloratzea ere bada. Horretarako, baratzeko produktuei, horiek dietan gehitzen dituzten onurei eta kontsumitzeko sasoi egokienari buruzko jarduera didaktikoak burutuko dira.

Kanpaina urtarrilean hasi zen eta 19 aste iraungo duela aurreikusitako da. Edizio honetan bikoiztu egin da parte hartzen duten ikasle eta ikastetxe kopurua iazko ikasturtearekin alderatuta. Orduan, 44 ikastetxek eta 4590 haurrek hartu zuten parte.

Ikastetxeek fruta jasotzen dute ikasleen artean banatzeko astean hiru egunez. Aurrez gurasoei jakinarazten zaie, banaketa-egunetan haurrek etxetik eramaten duten hamaiketakoaren ordean fruta jango dutela.

Lau fruta mota banatzen dira: albertxikoak, marrubiak, sagarrak, mertxikak, nektarinak, madariak, platanoak, mandarinak eta laranja. Fruta-atalak osorik eta zuritu gabe banatzen dira elikagai guztiak mantentzeko. Frutaren % 80 Nafarroan hazitakoa da sasoiko eta inguruko elikagaien kontsumo-eredua sustatzeko.

Kanpainaren kostua 274.000 eurokoa da, eta Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuneko funtsak ordaintzen dute erdibana. Nekazaritza, Elikagai eta Ingurumen Ministerioak 25.148 euro gehiago ematen ditu neurri osagarrietarako, adibidez, guraso eta irakasleentzako material didaktikoa argitaratzeko.

Nafarroan, kanpaina Foru Gobernuak hiru departamentutako teknikariek osaturiko batzorde batek kudeatzen du: Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak kanpainarako aurrekontuaren banaketari eta logistikaren diseinuari erantzuten dio, Osasun Departamentuak banatzen diren produktuen egokitasunaren irizpide teknikoak zehazten ditu elikagaien profila hobetzeko, eta Hezkuntza Departamentuak kanpaina burutzen duten ikastetxeekin harremanetan jarri eta jarduerak koordinatzen ditu. Fruta hornitu eta banatzeko [Grupo AN](#) enpresa hautatu da, interesa agertu duten hiru erakundeen arteko norgehiagoka-prozesuaren ondoren.